




Estibalitz González, 'Lapikotxiki' liburuaren egilea:

“Gustatzen zait sentitzea auzolanean egindako proiektu bat izan dela”

Estibalitz González ermuarrak 'Lapikotxiki, kantuz kulunkatzen' liburua kaleratu berri du Eibarko ...eta kitto aldizkariarekin elkarlanean eta Eibarko Udalaren babesarekin. 0-2 urteko umeei zuzenduta dagoen lan honek, egileak bildu dituen 38 kanta, puerikultura aholkuak, hiztegitxo eta DVD bat dauzka. Abestiak lotarako bakarrik ez, umeak hazten laguntzeko, laztantzeko, kulunkatzeko eta batez ere gozatzeko dira. Ia 10 urteko ibilbidea egin ostean ikusi du argia ekimenak. Liburuaren aurkezpena otsailaren 2an egin zen Eibarko Portaleako aretoa jendez gainezka zela.

- *la 10 urte Lapikotxikik bere ibilbidea hasi zuen. Nola sortu zen ekimena?*

Bi parte dauzka honek guztiak. Batetik, 1982an hasi zen kantu bilketa irakasle-eskolan nengoela: etxean abesten ziren kantuak jasotzeko agindu zigun irakasle batek eta haiekin lantxo bat egin nuen. Buruan hartu nituen kantok, ikasi eta uda batean koaderno batean bildu nituen. Drogeteniturrin hasi nintzenean idazten, historia gaiei buruz eta edadeko jendea elkarrizketatzen, sarritan kantuak ateratzen ziren eta nik bildumari jarraipena eman nion. Kantuak ikasi eta koaderno hartan idazten nituen. Horrez gain, kantu emailearen izen-abizenak eta bizilekua ere jaso nituen. Bestetik, Eibarko Euskara Sailean lanean nenbilela, euskara teknikari eta buru zen Fernando Muniozgurennek proposatu zidan zer edo zer egitea abesti bildumarekin. Nik zein ekarpen egin nezakeen hausnartu ostean, pentsatu nuen kantak istorio batekin uztartu zitezkeela, idazmenean hiztegiari eta esaerei toki garrantzitsua aitortuz. Horrela sartu ginen abentura honetan 2001eko apirilean.

- *0-2 urte bitarteko ume-entzako kantak biltzen ditu liburuak. Egoerak sortzeko hainbat familia izan dira inspirazio iturri.*

“Estimatzekoa da familiek hartu zuten konpromisoa eta eman zuten erantzuna”

Eibarko Portalean, liburu eta DVDko protagonistatxoekin.



Hasi ginenean ume jaio berri bat behar nuen, haren jarraipena egiteko. Topatu nuen Ermuko familia bat, ume jaioberria zuena eta haien etxera joaten nintzen asteazkenero, iluntzean bi orduz. Horrela bi urtetan. Han ikusitako eta familiak kontatutakoak idatziz jasotzen nituen gauean edo hurrengo egunean. Gero, beste familia batekin ere ibili nintzen aurrekoarekin ikasitakoa berretsi eta kontrastatzeko, baina kasu horretan umea koskortuta zegoenez, kalean batzen ginen. Istorioa ilustratzen duten argazkiak beste familia batenak dira eta DVDan agertzen direnak beste laugarren batenak.

- *Nolakoa izan zen harremana ume eta familia horiekin?*

Oso ona eta aberasgarria. Astero joaten nintzenen kasuetan, euren etxeetako egunerokotasunean murgiltzeko aukera izatea oso garrantzitsua izan da liburu eta kontakizuna sortzeko. Bazeukaten nagusitxoagoa zen beste ume bat eta liburrurako pertsonaia bat sortzen lagundu zidan. Eurak oso argi zuten zertara eta zertarako nindoan eta oso eroso sentiarazi ninduten hasieratik. Gainontzekoei erreparatuta, Lapikotxiki hankamotz geratuko litzateke argazki edo DVDko bi ume protagonisten familia-sare gutia egon ez balitz. Benetan estimatzekoa da familiek hartu zuten konpromisoa eta eman zuten erantzuna.

- *Liburuan beraz, ikerketa eta sorkuntza lan handia dago.*

Bai. Umeen garapenari buruzko liburu eta aldizkari mordoak irakurri nituen. Etxea ‘Ser Padres’ aldizkariz beteta neukan! Gero, umeen behaketa zuzena egin nuen.

Dokumentazio lan ikaragarria dago lan honen atzean. Liburuan, ordea, ezin da umerik identifikatu. Ez da hau edo bestea. Nik behar nituen eguneroko egoera arruntak eta horietatik abiatuz sortu nituen situazioak. Argi neukan ez nuela puerikultura tratatu bat egiterik nahi. Jende arrunta eta eguneroko egoeretatik hurbil zegoen istorioa izatea bilatzen nuen.

- *Dokumentazio eta behaketa lanaren ostean, Eibarko ...eta kitto! astekarian kaleratzeko istoriotxo bat sortzen hasi zineten.*

Hainbat frogak egin ondoren, hiru astean behin abestia eta bere partitura, idatzizko istorioa eta argazki bat kaleratu genituen 2004ko urritik 2007ko uztailera arte.

- *Lapikotxiki liburuak, aldizkarian argitaratutakoez gain, DVD bat ere badakar.*

Pentsatu genuen abestiak grabatzea eta DVD-a egitea. Aukera geneukan beste ume



Proba-Leku
Neapaindegia - Estetika

Probaleku 3, 1A
Tel. 943 17 05 42

Pub SCORPIO

Zubiaurre, 21
ERMUA

komunitateak
aseguruak

San Pelayo

aholkularitza
fiskal eta juridikoa

Tel./Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04
San Pelayo 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua

batekin, gainerako umeak nagusituta zeudelako. Hor hasi zen beste bi urteko ibilbidea irudi-grabazioak egiten. Liburuan dagoen egoera bakoitza, bere kantuaz, argazkiaz, puerikultura aholku batez eta abestiaren jatorriaz dago osatuta.

- Nola eta zeren arabera aukeratu zenituen libururako kantak?

Nik batuta ditudan kanta guztiak ez daude liburu honetan eta zeintzuk sartu eta zeintzuk kanpoan uzteko erabakia zaila izan zen. Kanpoan kanta asko geratu badira ere, desio dut ondo jorratuta egotea eta hautua ondo eginga egotea.

- Titulua aukeratzea errazagoa izan zen?

Isilean sekreturik gorde ezin duen pertsonari esaten zaio "lapikotxiki" eta umeak dira lapikotxiki handienak. Berbek, hitzek badute bere lekua lan honetan eta hasieratik argi ikusi nuen umeentzako oso hitz aproposa eta sinpatikoa zela.

- Aurkezpen egunean oso argi utzi zenue auzolanean egindako proiektua izan dela Lapikotxiki.

Bai, gustatzen zait sentitzea auzolanean egindako proiektu bat izan dela. Puntarengo profesionalaz, musikari eta kantu zale amorratuz inguratu naiz eta argitaratze bidean jarrita zenbat ideia jaso ditudan! Auzolanean eginda dago, ondoan izan ditudan 101 pertsonen ekarpen txiki asko dituelako.

- Bidelagun asko topatu duzu bidean?

Topatu ez, bilatu egin ditut. Niretzako demaseko frogia izan da, kosta egiten zaidalako laguntza eskatzea. Zalantzarik gabe bakarkako lan handia egin dut, baina ezinbestekoa izan da 101 lagun horien ekarpena. Nik sortu ahal dut, baina ezin dut lan osoa edertu.

- Zer dela eta luzatu da horrenbeste proiektua?

Batetik patxadaz egindako lana izan delako. Bestetik, ...eta kitto!-ko kolaborazioa amaitu nuenean pot eginda bukatu nuelako. Liburuarekin hasteko esan zidatenean distantzia bat hartu behar izan nuen eta urtebetez geldi egon zen kontua.

"Kanpoan kanta asko geratu badira ere, desio dut hautua ondo eginga egotea"

- Auzolanean egindako lana bada ere, amorratioak ere pasako zenituen hain luzea izan den prozesuan...

Amorratioak baino, krisiak pasa ditudala esango nuke. Sorkuntza lana izan da eta sorkuntzak bere gora beheak ditu. Fikziozko umeak urtebete egin zuenean, sentitu nuen ezin nuela aurrera egin; baina norberak bere buruarekin hartutako konpromisoa baino gauza zirikatzaileagorik ez dagoenez, azkenean lagun batek eman zizkidan animo eta aholkuekin krisialditik atera eta aurrera! Oso inportantea izan da inguruan izan dudana jende guztia.

- Liburua, Eibarko Udalak hango umeen artean banatuko du?

Bai 0-2 urte bitarteko Eibarko umei emango zaie, Haur-eskoletako eta bi urteko geletan dauden ume guz-

tiei banatuz. Gainera, hurrengo urteetan Eibarren erroldatzen dituzten jaioberriei ale bana oparitzea aurreikusten du Udalak.

- Ermuan non lortu daiteke liburua eta bere DVDa?

Maribel eta Xiripot liburu dendetan eta Quetzal arropa dendan dago salgai, 18 eurotan.

- Gustura geratu zara azken emaitzarekin?

Oso. Lehengoan esan zidaten: "Pozik, ezta Esti?". Nire erantzuna: "Pozik ez, pozik ez da hitza. Pozik beste maila batean dago. Zoriontsu, asebate. Lan handia egin dugu eta, beste gauza askoren artean, balio izan dit neure buruari aitortzeko badaukadala lanerako adore eta tinkotasuna. Gure txikia munduratu da eta beste batzuei tokatzen zaizue orain berorrek disfrutatzea eta ondorengoei transmititzea!

Alazne Aiestaran

Modu batean edo bestean parte hartu dutenetako batzuk aurkezpen egunean.



Zubiaurre 14
Telef. 943 17 28 88
48260 ERMUA

EGUZKI LORE

Quetzal
Arropa, bitxiak,
opariak... zer ez!
Goienkale 9 · ERMUA
943170065

Euskara eta euskaltegia
egin biak zureak



Teresa Murga, 2. solairua
Tel. 943 17 09 25